

MAITE LARBURU - BIOLIN JOLEA. Nicanor Zabaleta beka irabazi berri du

“Musika klasikoari museo kutsua kendu behar zaio eta joera berriei bidea utzi”

■ Maite Larburuk Amsterdamen “aukera guztiak aprobetxatu eta ahal duen gehiena ikasi nahi du”, baina, dio gero bueltatu egingo dela ■ 1999an jo zuen azkenekoz Hernanin eta ilusioa egingo lioke berriz kontzertua emateak.

MAITE Larburuk ez daki nondik datorkion musika zaletasuna: aitaren kantuak eta amak zuen musika klasikoko zinta ditu pista bakanrak. Zortzi urterekin hasi zen biolina jotzen, eta 10 urteko karrera bukatuta, ikasketak sakontzen ari da Amsterdamen. Larbururi ikasi eta lana biak egitea egokitu zaio. 12.000 euroak oso ondo etortzeaz gain, uste du beka badela lanaren errekonozimendua ere.

■ **Zer sentitu duzu Nicanor Zabaleta beka zuretzat dela jakitean?**

Poza galanta. San Joanak pasata hurrengo egunean egin nuen proba, ekainaren 28an. Festak asko gozatzeko aukerarik ez nuen izan, baina, orain pozik nago, bai.

■ **Nondik nora musika eta biolina jotzeko zaletasuna?**

Ba, askok galdetzen didate horri eta ez dakit. Familian ez du gu beste musikaririk izan. Aita, bai, beti kantuan aritzen zen eta amak bazuen musika klasikako zinta bat eta hura izan zen nere lehenengo pau soa. Etxean asko bultzatu eta lagundu didate. Hernani Musika Eskolan hasi nintzen biolina jotzen. Gero Donostiaro Kontserbatorioan egin nuen karrera. Ondoren, bi urtez Madrilen egon nintzen eta azken urteetan Amsterdamen (Hollanda) ari naiz ikasketak sakontzen. Berez, datorren kurtsoan bukatuko dut, baina, beste bolada batean ikasten segitu nahi dut. Orain dut garaia: Amsterdamen aukera onak dauzkat



Maite Larbururen ustez pazientzia da aurrera egiteko sekretua.

eta ahalik eta gehiena aprobetxatu nahi ditut.

■ **Sakrifizio haundia eskatzen al du biolinak?**

Responsablea izatea da garrantzitsua. Gero, egia da, bago edade txar bat ere, 14 ur-

tetik aurrera, orduak sartu behar dituzulako eta ezin duzu lako lagunek egiten duten gauza asko egin.

■ **Zein da sekretua biolina bezalako karrera egiteko?**

Pazientzia. Pazientzia eta pre-

sarik ez izatea. Batzutan dena harrika botatzeko gogoa ere ematen dizu eta, hor, aurrera egin behar da.

Bestalde, ikasteko zailena espresibitatea da, musikarekin zerbait esatea. Teknika denborra, gehiago edo gutxiagorekin, ikasten da, baina, bestea zailagoa da.

■ **Zein bide landu nahi duzu musikan?**

Badauzkat idea batzuk, baina, oraindik ez daukat erabat garbi. Musika barrokoa lantza gustatuko litzaidake, orduko biolinekin, orduko jotzeko modua. Hori da garai hartako musika ulertzeko modurik onena. Baina, ez nuke nahi erabat horretara bakarrik jarri ere. Gaur egungo beste alderdi batzuk ere landu nahi nituzke.

■ **Eta, nola ikusten duzu etorkizun profesionala?**

Orain artean ikasi eta lana biak egin ditut: kontzertuak eman ditut, umeak zaintzen aritu izan naiz... Talde bat osatu eta Ganbara musikatik bizitza oso-oso zaila da. Jende gehienak egiten du han eta hemen lan egin. Edo bestela, orkestaren batean postua atera, edo hezkuntzan, musika eskolen batean. Horiek dira gure aukerak. Baina, oraingoz ez dut horrek itsutsu nahi.

■ **Zer tankera hartzen diozu gaur musika klasikoari?**

Iruditzen zait musika klasikori museo kutsua kendu egin behar zaiola, eta tendentzia berriei bidea utzi. Horrek arnas berria ekarriko lioke, bai musika aldetik, bai publiko aldetik (gazte gehiago) eta abar. Amsterdamen ikusten dut pauso

Ondokoengandik ikastea gustatzen zaion talentua

MAITE Larburu Garmendia Hernanin jaio zen 1979ko abuztuaren 16an. 25 urte beteko dituen hernaniar honek, ordea, dagoeneko bide luzea egin du musikan, biolina lagun duela. 1988an hasi zen musika eta biolin klaseak hartzen Hernani Musika Eskolan. 1992an Donostiako Kontserbatorioan hartu zuen biolin karrera egiteko. Ikasketa bukaerako biolin azterketan *bikain* atera zuen, batez beste egunero sei ordutik gora sartuta.

Karrera bukatu ondoren, Larburuk ikasten jarraitu zuen Madrilen eta Amsterdamen, eta sona haundiko irakasleak izan ditu inguruan. Ez da, ordea, izen haundiko ereduekin itsutzen de na, eta aitorru du gora ez baizik alboetara begiratzen duela: “nere ondokoek zer gauza berri egiten dituzten fijatzen naiz gehien”.

Euskal Herriko Orkesta Gaztean eta Euskadiko Orkesta Sinfonikoan ibilia da eta maila haundiko beste kolaborazioak ere egin ditu.

Ganbara musika ere egin du Maite Larburuk. 1999an Ur-Klang laukoteara osatu zuen eta zenbait jaialdietan jo zuten. Hernanin ere bai. Gaur egunean biolin eta piano bikotea dute Junko Kanome eta biak. De Roep van den Kinkhoom operaren estrenoan ere parte hartu zuen.

hori ematen ari direla. Joera berri horiek, ordea, oraindik honera ez dira iritsi. Iruditzen zait bai hezkuntzan eta bai musikook lan asko daukagula hor egin beharrekoak.

■ **Izango al dugu Maite Larburu Hernanin entzuteko aukerarik?**

Beno, polita litzateke, bai, baina, errespeto haundia ematen dit Hernanin jotzeak. □

Antziola-Motor

Salmenta eta tailer
zerbitzua



Ford FocusC-MAX



Ford Focus, familiako
kide berria



eta Ford gama guztia

ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TEL.: 943 55 57 72

ORDUTEGIA: ASTEAN ZEAR 9-13 ETA 16-20 - LARUNBATETAN 10-13



Hernani Kirol Elkarteko zuzendaritzako kideak, orain dela gutxi egindako batzarrean.

Hernani Kirol Elkartea "pozik" Barriok konbenioa gertu ikusten duelako

■ Kirol Elkarteak kirol plan orokorra eskatu du berriz ere ■ "Ez dugu esan estali gabeko igerilekurik nahi ez dugunik. Nahi dugu, baina, urte osoan erabiltzeko modukoa".

KIROL Elkarteak eta Patronatuaren arteko gora-beherak hor jarraitzen du, eta oraingoa Kirol Elkarteak luze erantzun die Iñaki Barrio Kirol Patronatuko lehendakariak orain dela gutxi esandakoei. Nolanahi ere, HKEk dio poztu egin dela Barriok bien arteko konbenioa gertu ikustearekin: "horrek esan nahiko du berak ukatzen zigun konbenioa posible dela". Kirol Elkartearen esanetan, "gobernu kide, oposizio eta Alkatearen ikuspegi azkarra" eragin du jarrera aldatu eta "gure eskaera kontuan hartzeko dela ohartu da".

Kirol federatua eta kiroldeko abonatu gaian, HKEk dio 6.000 abonatuetatik 900 baino gehiago Kirol Elkartekoak direla zuzenean edo ze-harka. Honako hau planteatu du: "Ez dugu esaten beste abonatuak ez dutenik eskubiderik kirola egiteko herriko instalazioetan, baina, hori bultzatu behar bada, zer egiten duzue abonatuak ekintzak egin ditzen?".

Bestalde, Iñaki Barriok ukatu egin zuen umeei txartela ahazteagatik kiroldegian sartzea ukatzen zaienik. Horren aurrean, Kirol Elkarteak dio: "Nahi duzun leku eta momentuan aurkeztuko dizkizugu gure frogak". Horretaz

"6.000 abonatuetatik, 900 baino gehiago HKEko kideak gara. Zer egiten duzue abonatuak ekintzak egin ditzen? Zergatik abonatu ordezkaririk Patronatuko zuzendaritzan Patronatuko diru-sarreren ia % 50 abonatuena izanda?"

Aurreko legealdian ez ginen isilik egon eta eztabaidea gogorrak ere izan genituen EHrekin, baina, bildu eta hitz egiten genuen Horrela lortu genuen kirol federatua erantzunak diru-laguntzak bikoiztea."

"Zaila ikusten duzu Hernaniko kirol plangintza orokorra egitea. Badakigu kirol federatua, antolatua behera dijuela, baina, ez alduzu lanik egin behar horri frenua jarteko?"

"Igerileku berriari buruz, gure jarrera argitu nahi dugu. Guk ez dugu esan estali gabeko igerileku nahi ez dugunik.

Alderantziz, igerileku nahi dugu, baina, ondo egina eta urte osoan erabiltzeko modukoa."

gain, Patronatuko lehendakariari leporatu dio neurririk hartu ez izana, jakinaren gainean egonda.

Kirol Elkarteak 2002-2003 urteko diru laguntzak jasotze-

ko ditu, eta erantzun dio Barriok horri buruz esandakoari ere. "Aurreko legealdiaren akatsa izan zen kirol denboraldiko txostena apirilean eska-tzea, kontuan izanda kirol denboraldia abuztuaren 31an bukatzen dela". Baina, Kirol Elkarteak Barriori gogoratu dio 2003ko ekainetik 2004 ekainera bera izan dela Patronatuko Lehendakari.

Kirolaren plangintza orokorra
Kirol Elkarteak lehen ere eskatua du Hernaniko kirol eska-tza osoa bilduko duen plangintza orokorra, eta berriz ere horren beharra azpimarratu dio Patronatuko lehendakariari. Hasteko, Kirol Elkarteak gogoratu du plangintza hori EA-EAJ hauteskunde kanpaina agindutako konpromisoa dela eta betetzeko eskatu dio. Bestetik, Kirol Elkarteak dio jakineko dela kirol federatua eta antolatua behera dijozela, baina, Patronatuko buruari galdezen dio zer egin behar duen hori gelditzeko: "Beste hainbat arazoren aurrean Udalak neurriak hartzen ditu. Guri ere, eta herriari ere suposatzen dugu, gustatuko litzaiguke jakitea zein neurri hartuko dituzun arazoa bideratzeko. Edota, kirolak ez al du merezi?" □

Jubilatu Etxeak 11 eguneko eskurtsioa antolatu du Granadara eta izena ematea zabalik dago

■ Irailaren 27tik urriaren 7ra izango da ■ Prezioa 475 euro da eta zozketa uztailaren 21ean da.

GOIZ EGUZKI Jubilatu Etxeak hamaika eguneko eskurtsioa antolatu du Andaluzia aldera, Granada eta inguruak ikustera: irailaren 27an atera Hernanitik eta urriaren 7an bueltatu. Eskurtsioaren prezioa 475 euro da. Jubilatu

Etxeak adierazi du izena ematea zabalik dagoela eta hil honen 21ean egingo da zozketa, Goiz Eguzkin, arratsaldeko 17:00etan. Jubilatu Etxeak urtean bi eskurtsio luke antolatzen ditu eta jendea oso gustora ibiltzen da. □

ATZERA BEGIRATUTA

Elzekondo: Hernaniko Sanson

1878an jaio zen Isidoro Olloquiegui, "Elzekondo". Izenordea aitonagandik zetorkion; indartsu mantentzeko eguerdiko potajearen sobrak (elzekondoa) jan behar omen zirela esaten zuelako jarri zioten ezizena.

Soldaduskara joan zenerako 119 kilo pisatzen zuen eta bere perimetro torazikoa 119 zentimetrotakoa zen; soldaduskako lehen 23 egunak bere alkandora jantzita pasa behar izan zituen ez baitzuten bere neurriko uniformerik topatzen!

Harri jasotzen, pilotan eta baita Jiut-jitsu ere aritu zen. Ordea, ez zuen hernania-rrak aurre egingo zionik topatzen: apustua hitzartzea lortzen zuenetan ere, entrenamenduetako emaitzen berri

jakin bezain pronto beldurtu eta atzera egiten zuten lehia-kideek.

1947ko "La Voz de España" batean irakur daiteke behin Andoainen erakustaldia egiten ari zela, bi eskuez 134 kg. eta ezkerrekoaz 100 jasotak zituenean, alkateak geldi arazi egin zuela; nahikoa ikusi omen zuten ikuskizuna pertsonentzat baldin bazen, hortik aurrerakoak animalientzat izango liratekeela.

Frantzian, Belgikan, Inglaterran, Argentinan, Uruguayan, Kuban eta Mexikon ibilia zen, baina azken hori zuen maiteen. Parisko zirko batetik ere hots egin zioten behin; ezezkoa eman eta Hernanin geratu zen emaztearekin, 1926az gerotzik kirolak utzita. 1949an hil zen. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalarri anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- Gauzez: Rodriguez
Lasarte. Nagusia 42
☎ 943 361774

IRAGARKI MERKEAK

Ford Transit Diesel furgoneta salgai. S-AD (Santander) matrikula. Oso egoera onean. Deitu: 665 72 08 88

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)



Zikuñagako Ama mahai bueltan members gathered outdoors.

Zikuñagako Ama mahai bueltan

ZIKUÑAGAKO Amako txirrindulariak bazkari eder batekin ospatu zuten 25garren urteurrena. Gaur egunean, 70 txirrindulari inguru dabilta baina 150eko garaiak ere izan zituen. Zikuñagako Amako txirrindulariek, igandero egiten dituzte irteerak, eta horretaz gain baita, ibilaldi bereziak ere. Denboraldi bukaeran, sariak ere izaten dira hainbat irteeratik gora egin dituenarentzat. Hogeitabosgarren urteurrena dela eta, udazkenean Biterin argazki erakusketa egiteko asmoa ere badute. □